

erribera  
**ERRI****G****ORA**  
herrigara



## ZER DA ERRIGORA?

Errigora Euskal Herria lurzoru eta elkarlana lanabes dituen proiektu bat da. Nafarroa hegoaldeko "zona no vascofona" izendatua du ardatz. Bertatik eta bertarako egiten du lan, Euskal Herri osoko elkarlan eta ikuspegiak, noski.

Eremu horretakoak propio diren produktuak Euskal Herrian zehar zabaltzen ditu. Esaterako, zainzuriak, orburuak, arroza, olioak... Eta ekimen honen asmoa argia da: Zergatik urruneko produktuak kontsumitu etxean bertan edukita? Ba horixe, bertan bertokoa, eta kalitate ezin hobekoa gainera!



## ZEINTZUK DIRA ERRIGORAREN HELBURUAK?

- Nafarroa hegoaldeko produktuei Euskal Herriko plazan bidea ematea, merkatu globalizatua eragiten ari den kalteari aurre egiteko. **Elikadura subirautza** bultzatzeko, alegia.
- Nafarroa hegoaldeko "zona no vascofona"ko **euskalgintzari bultzada ekonomikoa** ematea. Horretarako, hango produktuak Euskal Herrian zabalduaz, etekin ekonomikoaren zati bat zonalde horretako euskalgintzara bideratzen da.
- **Herrigintza, auzolana, nazio-eraikuntza...** "betiko" lan kolektiboan oinarrituz ekarpen txiki bat egitea, lan molde honen beharra goraipatuz.

## ETA NOLA OSATZEN DA ERRIGORA?

Iaz, 2012an, Zazpiak Bat Harreman Sareak bere inizatibaz lan talde txiki bat osatu eta martxan jarri zuen proiektu hau. Kasu hartan Ikastolen Elkartearekin batera garatu zen proiektua. 1500 dik gora saski banatu ziren eta Argia Ikastolara 34.000 Euro bideratzea lortu zen. Ez dago gaizki, ezta?

2013ra begira, hausnartu eta helburuetan exigenteagoak izan gitezkeela konturatu ginen, proiektuaren lorpenetan oraindik hobetzerik bazegoela. Horrela ba, aldaketa batzuk planteatu ziren.

Proiektu honek nortasun eta antolakuntza propioa behar zituela ondorioztatu zen. Hori horrela, Zazpiak Bat Harreman Sarearen egitasmo honi ERRIGORA izena eman diogu; eta izenarekin batera, bere irudi korporatibo berria.

Horrez gain, egun ERRIGORA bere dinamika eta helburuekin bat egiten duen jende multzo batek ateratzen du aurrera. Sare erara funtzionatzen du eta sare hori, Euskal Herriko txoko ezberdinetako herritarrek osatzen dute, gure lagunek eta lagunen lagunek. Alegia, proiektu honen helburu eta filosofiarekin bat egiten duten bolondres multzo batek.



## BERAZ, ZEIN IZANGO DA ERRIGORAREN PROPOSAMENA?

- Batetik, ikasturte bakoitzean, entzutetsuenak izango diren bi kanpaina nagusi aterako ditu Errigorak Ikastolen Elkartea, Sortzen-Ikasbatuaz eta Aek-rekin elkarlanean. Lehenengo kanpaina udazkenean izango da, bigarrena, aldiz, udaberrian. Hauetan Nafarroa hegoaldeko produktuekin osatutako saskiak banatu eta ateratako dirua, bertako euskalgintzara bideratuko da.

**Udazkenekoa** izango da zabalena eta ahalegin nagusia eskeiniko dioguna. *Atzean duzue eranskina argipen guztiekin.*

**Udaberrikoari** dagokionez, eguneroko kontsumora bideratutako produktuez osatuko da. Hau da, aniztasun gutxiago eta kantitate handiagoa. Esaterako, olio bidoia, orburu kaxa...

- Bestetik, bi kanpaina nagusiez gain, kanpaina horiek sortutako giro eta sensibilitatea aprobetxatuz, Nafarroa hegoaldeko nekazaritzarekiko harreman iraunkorrago eta egunerokoagoak eraiki nahi ditu Errigorak. Hau da, Euskal Herriko txoko ezberdinetara nafar produktuei bide berriak irekitzea du helburu. Esaterako, ikastola eta ikastetxeetako jantokiak, kontsumo talde ezberdinak... zergatik ez hauetan urruneko olio, arroz edo zainzuriak kontsumitu beharrean bertokoak, nafarrak, kontsumitu? Erronka polita dirudi!

Produktua eskuz esku aztertu eta aukeratu dugu. Tamaina xumeko enpresak, irizpide agroekologikoetan aritzen direnak, kalitate bikaineko produktua eskaini digutenak... horiek dira saskien iturri. Kalitate oneneko lehengaiak!

**Gu guztion esku dago** iazko helburuak biderkatzea, gure lankidearengana, herriko udaletxera, ikasleen gurasoengana... **lau haizetara, saski hau zabaltzea.** Egizu zure ekarpena, mereziko du!

## UDAZKENEKO KANPAINA

### “Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka”

Udazkeneko kanpaina izango da zabalena eta indar desoreka handiena egingo dena. Nafar Hegoaldeko produktuez osatutako saskiak banatuko dira Euskal Herrian zehar. Saski koloretsua izango da, nafarroako produktu ezberdinen erakusleiho.

- **Kanpainaren partaideak:**

- \* Errigora: Errigorako kideak, kanpaina dinamizatzeaz arduratuko dira eta bitartekoak eskainiko dira eskola, ikastola, euskaltegi, elkarte, enpresa eta udaletxeetan kanpaina bere eremuan hedatu edota saskia eskura dezaten.

- \* Zazpiak Bat, Aek, Ikastolak eta Sortzen dira partaide nagusiak. Bakoitzak bere esparruan kanpaina garatzeko ardura du.

- \* Udaletxe eta enpresak: Aukera eta gogoia dagoen herrietan langileei aukera eskainiko diegu saskia eskuratzeko. Horretarako, zerrendak bideratuko dira eremu horietara.

- **Kanpainaren funtzionamendua:**

- \* Kanpaina hasterako, ERRIGORA arduratuko da leku bakoitzean (ikastola, eskola, euskaltegi, elkarte, udaletxe edota enpresa), erakusgarri izango den saski eta kartel bana izateaz.

- \* Kanpainak dirauen 3 asteetan saskia eskatu nahi dutenen zerrendak osatuko dira.

- \* Leku bakoitzean eskaria zenbatekoa den ERRIGORARI jakinarazi beharko zaio.

- \* Ostean, saskien banaketa ERRIGORAK egingo du.

- \* Leku bakoitzetik ERRIGORAREKIN kontaktuan aritu denak, saskien dirua jaso eta horretarako sortutako kontu korrontean sartuko du.



- **Lotearen osagaiak:**

Irizpidea argia da; Nafarroa hegoaldean propio sortzen diren produktuz osatua da saskia. Ez da letxugarik eramango Tuteratik Balmasedara, baina zainzuriak bai, edo pikillo piperrak,... Azaroko saskiaren helburua nafar produktuen erakusleiho izatea da, Euskal Herrian ezagutaraztea zer ekoizten den Nafarroa hegoaldean. Elikagai batzuk ekologikoak dira beste batzuk ekoizpen konbentzionalekoak, baina guztiak kalitate onenekoak.

## Hona hemen zerrenda:

- \* Olio botila bi (bat ekologikoa)
- \* 3 piper poto (bat ekologikoa)
- \* Potxak
- \* Kardoak
- \* Borraja
- \* Orburuak
- \* 2 zainzuri lata
- \* Tomate-pikillo saltsa (ekologikoa)
- \* Barazki krema (ekologikoa)



- **Saskiaren salneurria: 50€.**

Saski berdina merkatuan erosi ezkerok ere 50 eurotako salneurria izango luke. Alabaina, gure kasuan herritarren lan bolondresak egindako bitartekaritzak, %25 euskarari bideratzea errealitate bihurtzen du.



Aek, Sortzen eta Ikastola Elkartearen irizpideei kasu eginez, "zona no vascofona" izendaturiko eremuko proiektu zehatzetara bideratuko da ekarpen ekonomiko hori. Urtez urte erabakiko da, urte horretan zein proiektu aukeratzeko den.

- **Gutxi gorabeherako egutegia:**

AZAROA						
28	29	30	31	1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	1
ABENDUA						
2	3	4	5	6	7	8

- Kanpaina
- Banaketa
- Ordaintzea